## 003 IBILGAILUAREN GAINEKO ZERGA

## I. KAPITULUA: IZAERA ETA ZERGAGAIA

### 1. artikulua.

1. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duen zuzeneko tributua da, ibilgailuen mota, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein direla ere, eta zirkulazio baimenean ageri den helbidea Hernaniko udalerrian dagoenean exijitzen da.

2. Ibilgailua zirkulatzeko gai izango da bidezko erregistro publikoetan matrikulatua izan denean eta erregistro haietan oraindik baja emanda ez dagoenean. Aldi baterako baimena dutenak eta turismo matrikula daramatenak ere zirkulatzeko gai izango dira zerga honen ondorioei begira.

3. Ondoko hauek ez daude zerga honi lotuta:

a) Aspaldiko modeloak izateagatik erregistroetan baja emanda egon arren, kasu berezietan zirkulatzeko baimendu daitezkeenak ibilgailu mota hauentzat antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla-eta.

b) 750 kilogramotik gorako karga erabilgarria ez duten trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak

## II. KAPITULUA: SALBUESPENAK

### 2. artikulua.

1. Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta kreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta beren mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Baita ere, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Osasun laguntza emateko edo zauritu zein gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. Eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, desgaitasuna duten pertsonek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik aplikatuko zaizkie horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutako ondorioei begira, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a')100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako desgaitasunmaila aitortua duten pertsonak, mugikortasun murriztuko gabeziaegoeran badaude. Mugikortasuna murriztuta dutela joko da MugikortasunJardueren Mugen azpibaremoan, desgaitasun maila aitortu, ezarri etakalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 ErregeDekretuaren bidez onetsian, 100eko 25eko edo hortik gorakomugikortasun falta ematen zaienean.

b) Desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurrekoa´) eta b´) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztukoegoeran badaude eta Mugikortasun Jarduerak Mugatzeko azpibaremoaaplikatuta (desgaitasuna maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzekoprozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuarenbidez onetsitako azpibaremoa), ondorioztatzen bada haienmugikortasuna 100eko 75ean edo hortik gorako portzentajean dagoelamugatuta, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, betiere etaibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

Eraberean, ibilgailuak zergatik salbuetsita geratuko dira haientitularrek frogatzen dutenean guraso ahalagatik, tutoretzagatik edokuradoretzagatik beren kargura pertsonaren bat dutela eta haiendesgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa dela. Ibilgailu batenbaino gehiagoren titularrak badira, bakar bati aplikatuko zaiosalbuespena.

E) idatz-zatian adierazitako baldintzetan beren kargura minusbaliotasunak dituzten pertsonen ibilgailuen titularrek minusbaliotasun-maila eta minusbaliotasuna duen pertsonarekiko harremana egiaztatu beharko dute Udalaren aurrean.

f) Udalaren emakida administratibo bidez herri garraio zerbitzuari atxikita dauden autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, horien plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.

g) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makineria, Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaz hornituta daudenean.

2. Artikulu honen 1 apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, interesatuek eskaera bat aurkeztu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.

3. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioei begira, ibilgailuen titularrek udalerri honetan egon beharko dute erroldatuta, eta zergaz salbuesteko eskaera Udaletxeko Erregistro Orokorrean idatziz aurkeztu. Eskaerari honako agiriok erantsiko dizkiote

a) Desgaitasuna duten pertsonek gidatutako ibilgailuak:

— NANren fotokopia.

— Organo eskudunak emandako minusbalitasun-ziurtagiria.

— Gidatzeko Baimenaren aurrealdearen eta atzealdearen fotokopia.

— Zirkulazio Baimenaren fotokopia, desgaitusuna duen pertsonaren izenean.

— Ibilgailuen Fitxa Teknikoaren fotokopia.

— Ohiko gidaria azaltzen den ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia.

— Ibilgailua berak bakarrik erabiltzen duela dioen zinpeko adierazpena.

b) Desgaitasuna duen pertsonak garraiatzeko ibilgailuak:— Desgaitasuna duen pertsonaren eta ibilgailuaren ohiko gidariaren NANren fotokopiak.

— Organo eskudunak emandako minusbalitasun-ziurtagiria.

— Zirkulazio Baimenaren fotokopia, desgaitasuna duen pertsonaren izenean.

— Ohiko gidari gisa azaltzen den ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia.

— Ibilgailuen Fitxa Teknikoaren fotokopia.

— Ibilgailua salbuespenaren onuraduna garraiatzeko bakarrik erabiltzen dela dioen zinpeko adierazpena.

c) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta nekazaritzako makinaria.

— Zirkulazio baimenaren fotokopia.

— Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen Ziurtagiriaren fotokopia.

— Nekazaritzako makinariaren Inskripzio Txartelaren fotokopia. Edo bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazarita eta Ingurumen Departamentuko Nekazaritzako Makinariaren Erregistro Ofizialean Alta eman izanaren ziurtagiria, ibilgailuaren titularraren izenean egina nahitaez.

4.- e ) eta g) apartatuetean ezarritako salbuespen eskaera egin den dataren hurrengo zerga-periodotik aurrera izango dute efektua, eta zirkunstantzia horiek mantentzen diren artean aplikatuko dira. Dena dela, salbuespena zergaren likidazioa irmoa izan baino lehen eskatzen denean, salbuespena emango da baldin eta hartaz gozatzeko beharretsitako eskakizun guztiak betetzen badira tributuaren obligazioa sortzen den egunean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari utzi gabe, Udalak edozein unetan errekeritu ahalko du 3. atalean aipaturiko dokumentazioa berriro akredita dadin, halako moduan non, baldin errekerimendu hori betetzen ez bada, salbuespena automatikoki geratuko baita baliogabetua.

5.- 1. ataleko e) letrak aipatzen duen salbuespen horretarako eskubidea izango bada, beharrezkoa da ibilgailua desgaitasuna duten pertsonen erabilera esklusiborako destinatua egotea. Horrek, beraz, ibilgailuak zirkulatzen duenean beti barruan egotera obligatzen du.

Gainera, honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

A) Desgaitasuna duten pertsonek gidaturiko ibilgailuak:

Pertsona minusbaliatuen izenean matrikulaturiko eta desgaitasuna duten pertsonek gidaturiko ibilgailuen erabilera esklusiboak nahitaezkotzat eskatzen du ibilgailua esklusiboki gidatzea haren gidari den desgaitasuna duten pertsona titularrak. Eskakizun hori, ordea, ez da betetzen ibiligaluak beste gidari ohiko edo baimendun bat duenean, haren titular den desgaitasuna duten pertsonez gain. Ondorioz, baldin eta aseguru-polizan, ibilgailuaren titularra den desgaitasuna duten pertsonez gain, beste gidari ohiko edo baimendun bat ageri bada, ulertuko da ibilgailua ez dagoela desgaitasuna duen pertsonaren erabilera esklusibora destinatua.

B) Desgaitasuna duten pertsonak garraiatzera destinaturiko ibilgailuak.

Ibilgailua desgaitasuna duen pertsona garraiatzera esklusiboki destinatua dagoela kontsideratzeko, kontuan hartuko da ea ibilgailua pertsona hori garraiatzeko egokitua dagoen edo zer kalifikazio duen haren minusbalitasun graduak, zein pertsona horren minusbaliotasunaren Kalifikazioko Ebazpenean etorriko baita ezarria. Ebazpen horretan, elbarritasunaren gradua finkatzeaz gain, hurrengo baremo hauetako edozein egiaztatu beharko du:

- Hirugarren pertsonen beharra determinatzeko baremoa. Zailtasun hori existitzen dela kontsideratuko da baldin eta onuradun ustekoa baremoko A) atalean (Desplazamendua) sartua badago, gutxienez2 puntu lortzen dituenean.
- Pertsona minusbaliatuari garraio publiko kolektiboak erabiltzea eragozten dionmobilitateko zailtasunik existitzen ote den determinatzeko baremoa. Zailtasun hori existitzen dela kontsideratuko da baldin eta onuradun ustekoa baremoko A (Aulkiak), B (Bastoiak) edo C (Jokabidea) ataletan deskribaturiko egoeretakoren batean sartua aurkitzen bada, edo, ez egonda ere, gutxienez 7 puntu lortzen dituenean aipaturiko baremo horretako gainerako ataletan jasoriko egoeretakoren batean aurkitzen delako.

Desgaitasuna duen pertsona adin txikikoa bada edota adimen-desgaitua bada, garraiatzera esklusiboki destinatua dagoela kontsideratzeko, bakarrik eskatuko da desgaitasuna duen pertsona, ohiko gidariaren guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean dagoela egiaztatzea. Udalaren aurrean egiaztatu beharko da ardurapenaren egoera eta ohiko gidariak minusbalitasuna duen pertsonarekin duen harremana.

Salbuespen hau sustengatzen duen baldintza espresuki ez betetzeak, zeinek xedatzen baitu pertsona minusbaliatuen izenean matrikulaturiko ibilgailuak esklusiboki erabiltzeko direla, berekin ekarriko ditu hurrengo ondorio hauek:

• 1. aldian: salbuespena urtaldi batez errebokatzea; hain zuzen, bete eza gertatu deneko hartan.

• 2. aldian: salbuespena 3 urtaldiz errebokatzea; hain zuen, bete eza gertatu deneko hartan eta hurrengo bietan.

• 3. aldian: salbuespena 5 urtaldiz errebokatzea; hain zuzen, bete eza gertatu deneko hartan eta hurrengo lauretan.

• 4. aldian: salbuespena behin betiko errebokatzea

**III. KAPITULUA: SUBJEKTU PASIBOAK**

**3. artikulua.**

Honako hauek dira zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisiko zein juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluaren 3 apartatuak aipatutako entitateak, zirkulazio baimenean ibilgailua beren izenean ageri denean.

**IV. KAPITULUA: ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

**4. artikulua.**

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean. Horrelakoetan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, eta Trafiko Buruzagitzan behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

**V. KAPITULUA: Zerga kuota**

**5. artikulua.**

1. Eranskinean jasota dauden tarifen taulari jarraiki exijituko da zerga.

2. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, ibilgailua eskuratu edo baja ematen zaion hilabetea barne.

Ibilgailua lapurtzeagatik Erregistro Publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere kuota modu berean hainbanatuko da.

3. Aurreko apartatuko tarifak aplikagarri izango dituzten ibilgailu motak zehazteko, kontuan hartuko da abenduaren 21eko 114/1999 Foru Dekretua, hain zuzen ere, ibilgailu mota desberdinen kontzeptua ezarri eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak aplikatzeko arauak finkatzen dituena. Zehazki esanda:

-1na. Zerga honen ondorioetarako, bere tarifetan zerrendatzen diren ibilgailu mota desberdinen kontzeptua abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, II. eranskinean jasotakoa izango da.

- 2na. Furgoi edo furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek eta turismotik eratorritakoek turismo gisa tributatuko dute beren potentzia fiskalaren arabera. Ez da horrela izango, ordea, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraiatu dezaketenean, kamioi gisa tributatuko baitute orduan.

- 3na. Autokarabanek turismo gisa tributatuko dute beren potentzia fiskalaren arabera.

- 4na. Edozein kasutan ere, tarifa horien D) letran adierazitako traktoreen errubrika orokorrak honako hauek ere hartzen ditu: «traktokamioiak», «obra eta zerbitzuetako traktoreak» eta trakzio mekanikoko beste ibilgailuek garraiatu edo eramanak izan gabe bide publikoetatik zirkula dezaketen makina autobultzatuak.

- 5na. Hiru gurpileko ibilgailuak eta kuatrizikloak motozikletatzat hartuko dira zerga honen ondorioetarako eta, beraz, beren zilindradaren arabera tributatuko dute. Kuatriziklo arinek, beren aldetik, ziklomotore gisa tributatuko dute.

- 6na. Ibilgailu artikulatuen kasuan, arrasteko potentzia daramak eta arrastean eramandako atoiek eta erdiatoiek aldi berean eta bereizita tributatuko dute.

- 7na. Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, V. eranskinean xedatutakoaren arabera ezarriko da.

**VI. KAPITULUA: Hobariak**

**6. artikulua.**
1.-Oro har, hobaria eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen, eta ez du atzerako eraginik. Dena den, onura fiskala likidazioa irmoa izan baino lehen eskatzen denean, onura emango da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira

Hobaria interesatuek eskatu beharko dute eta ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adierazi behar dute. Interesatuek Udalerri honetan erroldatuta egon behar dute. Udal Administrazioak hobaria onartu ondoren, agiri bat luzatuko du eman dela frogatzeko.

2.Ibilgailu historikoek zerga-kuotaren% 100eko hobaria izango dute. Ibilgailuaren titularra pertsonajuridikoa bada, ez da hobaria aplikatuko.

3.Fabrikazio egunetik edo lehen matrikulaziotik kontatuta gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna dutenek ondoko hobaritik bat izango dute:

3.1. %90eko hobaria izango dute zerga kuotan, bizikidetza-unitatearen kideen izenean ibilgailu bakarra badago jabetzan.

3.2.%50eko hobaria, bizikidetza-unitatearen kideen izenean gehienez bi ibilgailuak badaude jabetzan.

Ez dira kontuan hartuko kamioiak, (ezta bidaiariak eraman ezin dituzten lanerako ibilgailuak ere) traktoreak, trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak, eta autobusak

4. Hobariak 2. eta 3 zenbakietan aipatutako zerga kuotari aplikatuko zaizkio. Bizikidetzaren kideek ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du hobaria.

5. Zerga kuotaren %75eko hobaria izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

a) Etxetik dakarren homologazioaren arabera gas naturalarekin, gas natural konprimatuarekin (GNK), gas natural likidotuarekin (GNL) edo petrolio-gas likidotuarekin (PGL) higiarazitakoa izatea, edo hidrogenozko ibilgailua (HICEV) edo erregai-piladuna izatea, betiere IIbilgailuen Araudi Orokorraren arabera “0 emisioko ibilgailua” edo “ECO ibilgailua” baldin bada.

b) Motor hibridoa izatea, etxetik bertatik homologatuta datorrena, betiere Ibilgailuen Araudi Orokorraren arabera “0 emisioko ibilgailua” edo “ECO ibilgailua” baldin bada.

Hobaria eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, hurrengo hiru ekitaldietan balio du.

6. Zerga kuotaren %95eko hobaria izango dute Motor elektrikoa duten ibilgailuek, etxetik bertatik homologatuta datorrena, betiere Ibilgailuen Araudi Orokorraren arabera “0 emisioko ibilgailua” edo “ECO ibilgailua” baldin bada.

Hobaria eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, hurrengo bost ekitaldietan balio du.

7. Edozein hobari jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Udaleko ogasunean inolako zorrik ez izatea. Aldi berean, ibilgailuek ITV egunean izan behar dute eta dagozkion aseguru kontratatuta izan behar dute. Horretarako aurkeztu beharko da dagokion agiriak (ibilgailuaren fitxa teknika ITV-ko zigiluekin eta indarreko aseguru-polizaren ordainagiriaren fotokopia

**VII. KAPITULUA: Kudeaketa eta likidazioa**

**7. artikulua.**

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den bizilekua Hernanin dagoenean, zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu, bildu eta zerga kudeaketan emandako egintzak berrikustea Hernaniko Udalaren ardura da.

**8. artikulua.**

Matrikulazioaren eta zirkulatzeko baimenaren ondorioz zergan alta hartzen duten ibilgailuen kasuan, autolikidazio erregimenean kudeatzen da zerga, eta gainontzeko ibilgailuen kasuan, berriz, Udalak urtero egiten duen Erroldaren bidez.

Aitorpen-likidazioak Udaletxean aurki daitezkeen inprimaki normalizatuak erabiliz egingo dira. Aitorpen-likidazio horiek kalkulurako beharrezkoak diren elementuak jasoko dituzte, eta agiri hauek erantsita aurkeztuko dira: ibilgailua erosi edo aldatu izanaren frogagiriak, ezaugarri teknikoen ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiria edo Identifikazio Fiskaleko zenbakia.

Interesatuak bulego kudeatzailean edo entitate laguntzaile batean ordaindu ahal izango du zerga kuotaren zenbatekoa, aitorpen-likidazioa behin bere esku duela. Edozein kasutan ere, ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatuko du ordainketa behar den zenbatekoagatik egin dela, eta aitorpen-likidazioaren inprimakia egiaztatu izana adieraziko du.

**9. artikulua.**

1. Trafiko Buruzagitzari ibilgailuaren matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun agiria edo behin betiko baja eskatzen diotenek Zerga ordaindu izana frogatu beharko dute aldez aurretik.

2. Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari haien erreformaren berri ematen diotenean, Zerga honen eraginetarako duten sailkapena aldatzen bada betiere, eta orobat, ibilgailuak transferitu, zirkulazio baimenean ageri den helbidea aldatu edo horiei baja ematen dietenean, zergaren azken ordainagiria ordaindu izana frogatu beharko diote aurrez Trafiko Buruzagitzari. Horrek ez du eragotziko, dena den, kontzeptu horregatik sortu, likidatu, kobrantzara aurkeztu eta preskribitu ez diren zor guztien ordainketa kudeaketa eta ikuskaritza organoen bitartez exijitu ahal izatea.

Hamabost urteko edo hortik gorako antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ordainketa frogatzeko obligaziotik kanpo geratzen dira.

3. Trafiko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen baja edo transferentzia espedienterik izapidetuko, aurretik Zerga ordaindu izana frogatzen ez bada.

**10. artikulua.**

Subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa zerga sortu den ekitaldian egitea.

**VIII. KAPITULUA: Betebehar formalak eta zerga arlokoak**

**11. artikulua**
.

Zerga honi lotutako ibilgailuen titularrek beharrezko tramiteak egin beharko dituzte Trafiko Buruzagitzan zirkulazio baimenean agertzen den helbidea beren ohiko egoitzakoa izan dadin.

**IX. KAPITULUA: Erroldak**

**12. artikulua.**

1. Matrikulatuta dauden edo zirkulatzeko gai diren ibilgailuen kasuan, zergaren urteko kuotak urte bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan eta Udalak erabakitzen duen kobrantza aldian ordainduko dira. Horren berri emango da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ediktuak argitaratuz eta legeriak aurreikusten dituen edo egoki jotzen diren bestelako baliabideak erabiliz.

2. Aurreko apartatuan araututako kasuan, urteko errolda erabiliz bilduko dira kuotak. Erroldaren aldaketak Trafikoko Erregistro Publikoaren datuetan oinarrituko dira.

3. Errolda edo zergaren matrikula jendaurrean erakutsiko da interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Horretarako epea hilabetekoa izango da, kobrantza aldia hasten denetik aurrera.

Jendaurreko erakusketaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta subjektu pasibo bakoitzari likidazioa jakinarazteko balio izango du.

**X. KAPITULUA: Itzulketak**

**13. artikulua.**

Ibilgailuari zerga sortu ondoren ematen bazaio behin betiko baja eta, ordurako, kuota ordainduta badago, subjektu pasiboak dagokion zenbatekoaren itzulketa eskatu ahal izango du Ordenantza Fiskal honen 5.2 artikuluan aipatzen den hainbanaketa aplikatuta.

**14. artikulua.**

Xedapen gehigarria11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, zerga honi Zergen Foru Arau Orokorrak kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari buruz nahiz zerga urraketa eta zigorrei buruz jasotzen dituen arauak aplikatuko zaizkio.

**15. artikulua.**

Amaierako xedapenaOrdenantza honek  eta bere eranskinak 2025eko urtarrilak 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak, indarrean jarraituko dute horiek indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

003.01.-ERANSKINA. Ibilgailu motak eta potentzia

**001. Automobilak**

| | 2025 kuota/2025 cuota |
|---|---|
| Ibilgailu mota eta potentzia | Igoera koef./Coef. incremento |
| | 45,55 € |
| 9 zaldi fiskaletik beherakoak | 2,4768 |
| | 99,30 € |
| 9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak | 2,7000 |
| | 169,00 € |
| 12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak | 2,7575 |
| | 242,20 € |
| 14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak | 2,8224 |
| | 321,60 € |
| 16 eta 19,99 zaldi fiskal biartekoak | 2,9147 |
| | 404,58 € |
| 20 zaldi fiskaletik gorakoak | 3,0000 |

**002. Autobusak**

| | 2025 kuota/2025 cuota |
|---|---|
| | Igoera koef./Coef. incremento |
| | 222,65 € |
| 21 plaza baino gutxiago | 2,6731 |
| | 320,00 € |
| 21 eta 50 plaza bitartean | 2,6973 |
| | 408,77 € |
| 50 plaza baino gehiago | 2,7563 |

**003. Kamioiak**

| | 2025 kuota/2025 cuota |
|---|---|
| | Igoera koef./Coef. incremento |
| | 109,75 € |
| 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak | 2,5956 |
| | 217,45 € |
| 1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak | 2,6101 |
| | 311,85 € |
| 2.999 kg-tik gorako eta 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak | 2,6284 |
| | 398,45 € |
| 9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak | 2,6866 |

**004. Traktoreak**

| | 2025 kuota/2025 cuota |
|---|---|
| | Igoera koef./Coef. incremento |
| | 45,55 € |
| 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak | 2,5768 |
| | 72,25 € |
| 16tik 25era bitarteko zaldi fiskalak dituztenak | 2,6012 |
| | 215,65 € |
| 25 zaldi fiskaletik gorakoak | 2,5885 |

**005. Trakzio mekanikoko ibilgailuak eramandako atoiak eta erdi-atoiak**

| | 2025 kuota/2025 cuota |
|---|---|
| | Igoera koefi./Coef.incremento |
| | 46,50 € |
| 750 kg-tik gorako eta 1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak | 2,6321 |
| | 73,55 € |
| 1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak | 2,6493 |
| | 220,80 € |
| 2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak | 2,6509 |

**006. Gainerako ibilgailuak**

| | 2025 kuota/2025 cuota |
|---|---|
| | Igoera koef./Coef. incremento |
| | 11,65 € |
| Ziklomotoreak | 2,5782 |
| 125 cm3 bitarteko motozikletak | 2,5782 |
| | 21,25 € |
| 125 cm3 baino gehiagoko eta 250 cm3 bitarteko motozikletak | 2,7524 |
| | 43,35 € |
| 250 cm3 baino gehiagoko eta 500 cm3 bitarteko motozikletak | 2,8072 |
| | 86,75 € |
| 500 cm3 baino gehiagoko eta 1.000 cm3 bitarteko motozikletak | 2,8072 |
| | 173,35 € |
| 1.000 cm3-tik gorako motozikletak | 2,8052 |

003.02.-ERANSKINA. Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergak. Hobariak

**01. Historikoak**

| | % |
|---|---|
| Ibilgailu historikoek hobaria izango dute. Ibilgailuaren titularra pertsona juridikoa bada ez da hobaria onartuko | 100 |
| | |
| Edozein hobari jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Udaleko ogasunean inolako zorrik ez izatea. Aldi berean, ibilgailuek ITV egunean izan behar dute eta dagozkion aseguru kontratatuta izan behar dute. Horretarako aurkeztu beharko da dagokion agiriak (ibilgailuaren fitxa teknika ITV-ko zigiluekin eta indarreko aseguru-polizaren ordainagiriaren fotokopia | |

**02. Aintzinatasuna**

Fabrikazio egunetik edo lehen matrikulaziotik kontatuta gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna dutenek ondoko hobaritik bat izango dute. Bizikidetzaren kideek ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du hobaria.

| | % |
|---|---|
| bizikidetza-unitatearen kideen izenean ibilgailu bakarra badago jabetzan. | 90 |
| Bizikidetza-unitatearen kideen izenean gehienez bi ibilgailuak badaude jabetzan. Ez dira kontuan hartuko kamioiak, (ezta bidaiariak eraman ezin dituzten lanerako ibilgailuak ere) traktoreak, trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak, eta autobusak | 50 |
| | |
| Edozein hobari jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Udaleko ogasunean inolako zorrik ez izatea. Aldi berean, ibilgailuek ITV egunean izan behar dute eta dagozkion aseguru kontratatuta izan behar dute. Horretarako aurkeztu beharko da dagokion agiriak (ibilgailuaren fitxa teknika ITV-ko zigiluekin eta indarreko aseguru-polizaren | |

| | |
|---|---|
| ordainagiriaren fotokopia | |

**03. Karburantemotaren arabera,**

| | % |
|---|---|
| Etxetik dakarren homologazioaren arabera gas naturalarekin, gas natural konprimatuarekin (GNK), gas natural likidotuarekin (GNL) edo petrolio-gas likidotuarekin (PGL) higiarazitakoa izatea, edo hidrogenozko ibilgailua (HICEV) edo erregai-piladuna izatea, betiere IIbilgailuen Araudi Orokorraren arabera “0 emisioko ibilgailua” edo “ECO ibilgailua” baldin bada. Hobaria eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, hurrengo hiru ekitaldietan balio du | 75 |
| | |
| Edozein hobari jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Udaleko ogasunean inolako zorrik ez izatea. Aldi berean, ibilgailuek ITV egunean izan behar dute eta dagozkion aseguru kontratatuta izan behar dute. Horretarako aurkeztu beharko da dagokion agiriak (ibilgailuaren fitxa teknika ITV-ko zigiluekin eta indarreko aseguru-polizaren ordainagiriaren fotokopia | |

**04. Ibilgailu hibridoak**

| | % |
|---|---|
| Motor hibridoa izatea, etxetik bertatik homologatuta datorrena, betiere Ibilgailuen Araudi Orokorraren arabera “0 emisioko ibilgailua” edo “ECO ibilgailua” baldin bada. Hobaria eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, hurrengo hiru ekitaldietan balio du. | 75 |
| | |
| Edozein hobari jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Udaleko ogasunean inolako zorrik ez izatea. Aldi berean, ibilgailuek ITV egunean izan behar dute eta dagozkion aseguru kontratatuta izan behar dute. Horretarako aurkeztu beharko da dagokion agiriak (ibilgailuaren fitxa teknika ITV-ko zigiluekin eta indarreko aseguru-polizaren ordainagiriaren fotokopia | |

**05. Motor elektrikoa duten ibilgailuak**

| | % |
|---|---|
| Zerga kuotaren %95eko hobaria izango dute Motor elektrikoa duten ibilgailuek, etxetik bertatik homologatuta datorrena, betiere Ibilgailuen Araudi Orokorraren arabera “0 emisioko ibilgailua” edo “ECO ibilgailua” baldin bada.Hobaria eskatu beharrekoa da, eta, onartuz gero, hurrengo bost ekitaldietan balio du. | 95 |

| | |
|---|---|
| Edozein hobari jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Udaleko ogasunean inolako zorrik ez izatea. Aldi berean, ibilgailuek ITV egunean izan behar dute eta dagozkion aseguru kontratatuta izan behar dute. Horretarako aurkeztu beharko da dagokion agiriak (ibilgailuaren fitxa teknika ITV-ko zigiluekin eta indarreko aseguru-polizaren ordainagiriaren fotokopia | |